

# Gaztelugatxe

Biotopo Babestua Biotopo Protegido

## Ibilbideak · Itinerarios

### Gaztelugatxe

🕒 1h15' 📏 3km 🏔️ 175

Biotopo Babestuaren bihotzean dago SAN JUAN GAZTELUGATXEKOA: Edertasun handiko paisaia da hau, natura eta gizakion elkarlanaren emaitza. Itsasoak landutako artelan naturala da, bere eraginpean bizi baita. Bide txiki bat jaisten da Eneperitik penintsula bitxi honetara. Bertan 3 arkuko zubi eder bat zeharkatu eta berehala hasiko dira ermitara heltzeko igo behar ditugun 241 eskailera-mailak. Baina beraino jaitsi nahi ez baduzu bidean badago naturagune honen panoramika ederra eskainiko dizun begiratokia. Ermuko ibilbidetik ere heldu ahal gara ermitaraino, baina bidea luzeagoa da.

El Biotopo de GAZTELUGATXE destaca por su belleza y por la convivencia entre lo natural y lo artificial. Un bello sendero desciende en fuerte desnivel desde Eneperi a la base de la península donde tras cruzar un curioso puente de 3 arcos deja paso a los 241 escalones que hay que ascender para alcanzar la ermita. En el primer tramo del recorrido se ha acondicionado un mirador que nos ofrece una bella panorámica, sin tener que acceder al peñón. También podemos acceder al peñón por el sendero de Ermu, que es algo más largo.

### Baselizen ibilbidea Ruta de las ermitas

🕒 3h 📏 11km 🏔️ 150

Bakioko hondartza eta San Juan Gaztelugatxearen artean dauden 3 kilometro eskasek, itsasoren mailatik bertikalean 75 metrora heltzen diren itsaslabar malkartsuak dituen edertasun handiko paisaia osatzen dute. Kostaldeari paraleloan doakion Bakioko baselizen ibilbidetik joanda Bakioko hondartzara hel gaitzke. Barrualdetik joanda berriz, San Pelaio (XII. mendekoa) baselizatxotik pasata, Bakioraino helduko gara. San Pelaioa dugu Bizkaian geratzen den arte erromanikoaz dugun aztarna eskasetako bat.

La estrecha franja costera, que separa la playa de Bakio con San Juan de Gaztelugatxe en apenas 3 km, constituye un conjunto paisajístico de singular belleza con escarpados acantilados que emergen en vertical hasta 75 metros sobre el nivel del mar. A través del tramo de la ruta de las ermitas que discurre paralela a la línea de costa, podemos llegar a la playa de Bakio, y por el tramo del interior, llegaremos al centro del municipio pasando por la pequeña ermita de San Pelaio (siglo XII), una de las escasas muestras del arte románico en Bizkaia.

### Matxitxako

🕒 1h 📏 1,5km 🏔️ 150



### Urdaibai Biosfera Erreserba Reserva de la Biosfera

### Matxitxako

MATXITXAKO, gure kostaldean itsasoan gehien sartzen den lurmuturra da eta ondorioz sarri egin behar izaten dio aurre haize bortitzari eta gazitasun handiari. Lurgorriko atsedean lekua eta Matxitxakoko itsasargia herri-bide zahar batek lotzen ditu. Bidean naturagune zoragarri honen ikuspegi ederrenaz gozatzeko aukera daukagu, bai eta ondare kulturalaren altxor txiki batzuk ezagutzeko aukera ere: talaia, bolborategia, kainoi bateria... Itsasargi zaharrean gaur egun itsas hegazti eta zetazeoen begiratokia egokitu dute.

Matxitxako es el cabo de la costa de Bizkaia que más se adentra en el mar y por lo tanto se encuentra continuamente expuesto al fuerte viento y la alta salinidad. Un sendero une el área recreativa de Lurgorri con el viejo faro de Matxitxako. En él podremos disfrutar de la singular belleza de este enclave costero de una de las mejores panorámicas sobre Gaztelugatxe, así como de algunos pequeños tesoros de nuestro patrimonio cultural: la atalaya, el polvorín, la vieja batería de cañones de la guerra civil ... Actualmente el viejo faro cuenta con un observatorio de cetáceos y aves marinas enfocado a la investigación.

Ibilbide hauek egiteko oinetako egokiak eta ura eramán behar dira. Osasun arazoren bat edukiz gero, ez egin ibilbide hauek, horretarako fisikoki indartsu egon behar baita. Inguru Babestu Naturala denez, bertoko animalia, landareak eta inguruko lasaitasuna zaindu behar dira zaratarik egin barik. Norberaren zaborrak ere bueltan eramán behar dira.

Para recorrer estos senderos hace falta calzado adecuado y es recomendable llevar agua. Los senderos requieren de una actividad física importante, por lo que personas con cualquier tipo de problemas de salud deben de abstenerse a realizar estos recorridos.

### Ikurrak · Leyenda

- Biotopoaren muga / Límite del biotopo
- San Juaneko ibilbidea / Ruta de San Juan
- Matxitxako eta Baselizen ibilbideak / Ruta Matxitxako y Ermitas
- Informazio puntua / Punto de información
- Behatokia / Mirador
- Garrantzi naturalistiko / Interés naturalístico
- Atsedengunea / Área recreativa
- Baseliza / Ermita
- Itsasargia - Begiratokia / Faro - Mirador
- Ondare kulturala / Patrimonio cultural
- Taberna - Jatexea / Bar - Restaurante
- Ostatua / Alojamiento
- Garraio publikoa / Transporte público
- Aparkalekua / Parking
- Oroigarri denda / Tienda Souvenirs
- Sarbide debekatua ibilgailu guztientzat / Paso prohibido a todo vehículo
- Sarbide debekatua oinezkoentzat / Paso prohibido para peatones

### Autobusen ordutegiak Horarios autobuses

<b>Línea A3517:</b> Ekainaren 10etik Irailaren 3ra Del 10 de Junio al 3 de septiembre	<b>(Orduru - Cada hora)</b>
<b>Bakio-Gaztelugatxe-Bermeo</b> Lanegun eta larunbatetan: Laborables y sábados: <b>06:45tik 20:45ra.</b> Jailegunetan - Festivos: <b>08:45tik 20:45ra.</b>	<b>Bermeo - Gaztelugatxe-Bakio</b> Lanegun eta larunbatetan: Laborables y sábados: <b>07:30etik 20:30era</b> Jailegunetan - Festivos: <b>09:30etik 20:30era</b>
<b>Línea 3524:</b> Urteko beste sasoiotan eta lan egunetan baino ez (8 laguntzeko BUSa) Resto del año y solo laborables (bus 8 plazas)	
<b>Bakio-Bermeo:</b> de 6:45 a 18:45 (Ordu biro - cada dos horas)	<b>Bermeo-Bakio:</b> de 7:15 a 19:15 (Ordu biro - cada dos horas)

